

Nafarroa EUSKARAtik suspertu



ATARIKOA

Nafarroako Gobernuak *Nafarroa Suspertu* delako ekimena jarri du abian. Dokumentu zinez interesgarria bere buruari jarritako misiotik hasita. Izan ere, planaren misioa da krisialdi honetatik kementsu irteteko tresna publiko eta pribatu guztiak bultzatu eta koordinatzea.

Gobernuak dio hazkunderako, berrikuntzarako, berdintasunerako eta ekitaterako oinarri berriak behar direla, desberdintasunak areagotzeko arriskua baitago, atzean inor ez uzteko.

Gauzak horrela, Gobernuak jaso du beharrezkoa dela botere publikoak egoerara egokitzea eta, gainera, oparotasunerako formula berrien sustatzaile ere bihurtzea. Aurrean dugun eredu berriak aurrekoarekin haustea ekarriko duten erantzunak eskatzen dituela jaso du.

Hartara, Euskararen Gizarte Erakundeek KONTSEILUAK eta Hizkuntz Eskubideen BEHATOKIAK aipatu dokumentua irakurrita, eta gizarte eragileei iritzia propio eskatu zaiela kontuan hartuta, haien proposamena helarazi nahi diote Gobernuari.

Euskararen Gizarte Erakundeek KONTSEILUA euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten eragileen bilgune handiena da. Euskararen normalizazio-prozesua azkartzea du helburu, horretarako politikoki eta sozialki eraginez.

Hizkuntz Eskubideen BEHATOKIA euskaldunon eskubideen alde lan egiten duen fundazioa da. Horretarako, herritarrei begirako zerbitzu publikoa eta doakoa du, eta hori baliatuz herritarrek eskubideen urraketak helarazten dizkiote.

Azpimarratzekoa da testuinguru honetan Behatokiak lanketa berezitua egin behar izan duela pandemia egoeran gertatu diren eskubide-urraketei dagokienez.

Nafarroako Gobernuak adierazi du prestatutako agiria alde aurreko ohar batzuek osatzen dutela, planak izan beharreko oinarritzko egitura identifikatzeko. Hartara, ez da agiri itxia, ideari itxura emateko agiri bat baizik, haren izaerari, dimentsioari eta egiturari norabidea emateko.

Are gehiago, Gobernuaren helburua da aztertzea zer egoeratan gauden, eta gogoeta egitea ekintza posibleez eta egungo krisitik ateratzeaz, gizarte sendoago eta kohesionatuago baten aurrekari gisa.

Kohesioa izan da azken urteotan KONTSEILUAK eta BEHATOKIAK aldarrikatutako ardatzetako bat, justiziarekin eta berdintasunarekin batera, gizarte berdinzaleagoa eraikitzeko. Hartara, etorkizunean gizarte kohesionatuagoa lortuko dugu, baldin eta hizkuntzaren ikuspegia txertatzen badugu kohesioaren parametroetan, justizian eta berdintasunean egin beharko dugun moduan bezalaxe.

Honako dokumentuan, beraz, *Nafarroa Suspertu* planean hizkuntzaren ardatza txertatzeko proposamenak jaso dira. Izan ere, zinez uste dugu herren geratuko dela nafarren arteko zein lurraldearen kohesioa, baldin eta milaka herritar etorkizuneko politiketatik at geratzen badira.

1

TESTUINGURUA

Zalantzarik gabe gizartean hainbat ikuspegitatik zaurgarri diren kolektiboen aurka gogorrako jo du pandemiak. Dela ikuspegi sozialetik, dela genero-ikuspegitik, dela sexu orientaziotik, dela aniztasun funtzionaletik, dela errefuxiatu edo egoera irregularrean dauden migratzaile askok pairatzen duten egoera zaurgarritik ... Eta, noski, dela hizkuntzaren ikuspegitik ere.

Zorionez, hizkuntzaren ardatza erdigunean kokatzeko behar hori ez dute Kontseiluak edo Behatokiak bakarrik agertu. Europako Kontseiluak eta Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Antolakundeak bizi dugun pandemiak Europako estatu gehienetan itxialdiak eragin zituen unean bertan publiko egin zituzten gomendioak. Bi erakundeok tokiko hizkuntzen erabilera herritarren gizarte ongizatearekin lotu zuten. Estatuei gogorarazi zieten zein garrantzitsua den herritarrei muturreko egoera batean zabaldu beharreko informazioa tokiko hizkuntzan helaraztea, bai eta, noski, osasun-zerbitzuak tokiko hizkuntzan jasotzea ere.

Gomendio horien betetze-mailari dagokionez, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak *Basque language discrimination cases* izeneko txosten berezitua igorri zuten Estrasburgora.

Euskarari eta beste hainbat hizkuntzari buruzko txostenak aztertu ostean, Europako Kontseiluko Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren Adituen Batzordeko presidente Vesna Crnić-Grotić andreak adierazpenak egin zituen, eta kezka agertu zuen, txostenak aztertuta, informazio gutxi eskaini zelako hizkuntza gutxituetan.



Aipatu zuen, bai, pandemian zehar ohartu direla, hizkuntza gutxituak ez direla ofizialak bezain garrantzitsuak, eta hizkuntza gutxituen erabilera testuinguru guztietan garrantzitsua dela esan izan badute ere, are garrantzitsuagoa dela larriadi-uneetan, pandemia honetan bezalaxe.

Egia da, bai, adibide oso gogorra jarri zuela Batzordeko presidenteak, izan ere, haren arabera osasun-langileek diote jendea bakarrik hiltzen ari dela, eta noski, hori oso tristea dela esan zuen; baina, adituaren arabera, are tristeagoa inguruan zuzentzen zaizkionak bere hizkuntzan ez badira komunikatzen.

Heriotzaren uneaz hitz egin dugu, baina ezin genezake albo batean utzi jaiotzaren unea. Pandemia-garai honetan, haurdunaldian dauden edo erditu diren emakumeak ere egoera berezian izan dira, eta behar zituzten zerbitzuetan hizkuntza bermatua ez izateak are estuagoak egin ditu une horiek. Kasu horretan ere, pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatzeak gertutasuna, zaintza eta segurtasunaren alde egitea dakar.

Azkenik, Europako Kontseiluko aditua ohartu da, bai, kasu gehienetan herritarrek Estatu hizkuntza ere ongi ezagutzen dutela, baina informazioa eta azalpena hizkuntza gutxituan egoteak hurbilago egiten du mezua.

Iruditzen zaigu, beraz, Europako Kontseiluko adituak proposatutako jarraibideak ere txertatu beharko direla etorkizuneko politiketan. Batetik, gizarte-ongizate kontua delako, eta bestetik, Nafarroa Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eraginpean dagoelako.

2

**GIZARTE
EREDU
BERRI
BATERAKO
AUKERA**

Egia da, bai, halako testuinguru bortitzek zer hausnartu ematen dutela. Halere, gizartearen ahuleziak non dauden erakusteaz gain, horiei aurre egin eta gizarte indartsuagoa eraikitzeko aukera ere eskaintzen dute.

Egia ere bada, horrelako egoeretan norberekoikeriaz jotzeko tentazioa ere egon daitekeela, eta gizartearen uneko ahulezia baliatu etorkizunari begira are zaurgarriagoa eta zatikatua izango den etorkizuna eraikitzeko.

Akaso, horrela ulertu behar dugu azken asteotan hainbat aldetatik kazetari eta aktibista kanadar Naomi Kleinek *The Shock Doctrine*ren egindako azterketa berriz ere mahai gaineratu izana. Berak azaldu bezala, zenbait politika ekonomikorik garrantzia lortu zuten, ez popularrak zirelako, baizik eta hondamendietatik edo kontingentzietatik abiatuta psikologia sozialean eragindako inpaktuak baliatu zituztelako. Eta, beraz, egun bizi dugun katastrofea baliatuz, gizartearen ahultasuna eta izua baliatuz, testuinguru arruntan onartezinak ziratekeen erreformak abian jartzeko tentazioa hor egongo da. Esan gabe doa, aipatu erreformen izaera globalizatzaileak eta merkantilistak albo batean utziko luketela geurea bezalako hizkuntza-komunitateen biziraupena, eta hori saihesteko bideak jarri behar dira.

Dena den, bada horren ifrentzua. Egungo testuinguruak agerian jarri dituen zaurgarritasunei aurre egiteko sistemen ezaugarriak josten ari dira.

Mugimendu Feministak berriz ere jarri zuen zaintzaren parametroa erdigunean, bizilagunen bizitza erdigunean kokatzeko hain zuzen.

Horrela, zaintza-krisiari erantzungo dion estrategiaren beharra mahai gaineratu zuten, etorkizuna irizpide horien arabera eraiki beharra aldarrikatuz.

Zaintza beharrak areagotu diren unean, emakumeen gainean zama handiagoa jarri da (lehendik zegoen arrakala handituz), bai eta haurren hezkuntzaren zama ere. Horrela, alor akademikoak hartzen zuen hizkuntzaren gaia ere bere gain hartu behar izan du. Egun dugun egoerak pobrezia feminizazioa denboran ere neurtzen den heinean, emakumeak are gehiago pobretu ditu. Era berean, emakumeek norbanako gisa murritzatuak ikus ditzakete gutxitutako hizkuntza ikasteko dituzten baliabideak (ekonomikoak zein denborari dagozkionak).

Beste alde batetik, ikusi berri dugu Kate Raworth ekonomistaren modelo zirkularrari jarraiki Amsterdamen probatu nahi dutela *donut*aren teoria. Hor ere garapen jasangarriaren helburuen ardatzak zehaztuta daude. Egungo sistemen aurrean, gure inguruko bizigarritasun-baldintzak markatzen dituen sabai planetarioaren eta benetan demokratikoa, parte-hartzailea eta berdintasunezkoa den lurzoru sozialaren arteko espazioa aldarrikatzen du.

Hartara, orain badagokigu gizarte berria ezaugarritzeko parametro horietan guztietan hizkuntzaren ardatza kokatzea.

Hor ere badugu gero eta kokapen zentralagoa hartzen ari den ekologismoak dakarren jasangarritasuna.

Jasangarritasunari lotzen bagatzaizkio, kultura hegemonikoak bizitzari gerra deklaratu diola aipatu izan da ekologismotik. Finean, bizitza duinak hartuko dituen eredu batera jotzeko erabakia hartu beharra mahai gaineratu izan da eremu horretatik Horrela, esan dezakegu, bertan jasotzen diren elementuetan errazki kokatzerik dagoela hizkuntza gutxituaren gaia.

Hiru faktore aipatu izan dira: krisi ekologikoa, menderakuntza-ardatz guztietako desberdintasunen sakontzea eta larritasuna. Are gehiago, aldaketa ardatzu behar duten elementuen artean justizia eta subirautea-irizpideak aipatu izan dira, eta esan gabe doa, bi ardatz horiek bat egiten dutela guk aldarrikatzen ditugun elementuekin.

Azkenik, esan behar dugu Raworthek sortutako *donut*aren teorian iraunkortasunari, ekitateari eta pobreziari buruzko munduko eztabaidan hizkuntzaren eremua galtutako maila dela.

Finean, espazio segurua eta bidezkoa nahi dugu gizateriarentzat, eta denok bizi beharko dugu *donut* baten barruan, gure ingurunearen bizigarritasun-baldintzak markatzen dituen sabai planetarioaren eta gutxieneko bizitza duina ahalbidetzen duen lurzoru sozial baten artean.

Horrexegatik, giza ongizatea muga sozial eta ekologikoen barruan bakarrik egon daitekeela iradokitzen denez, ingurumen-iraunkortasuna eta hizkuntza-justizia batera jorratzearen garrantzia nabarmendu behar da.

Hartara, eredu horretan ere badago hizkuntza gutxituaren elementua normaltasunez txertatzerik. Horrela, norbanakoen zein kolektiboen ongizatea bermatzera zuzendutako "ureztatze sistema" izan behar da. Halaber, jendartean zein ingurunean aplikatu nahi ditugun neurri guztiak pertsonen ondo barneratuko dituztela eta sisteman kontuan hartzen ditugula ziurtatzeko komunikazio-mekanismoa ere izango da.

Hona hemen modu grafikoan balizko *donut*aren irudia:



Eta, antzeko balore eta parametroen bueltan aritu izan da euskalgintza Nafarroan. Azken urteotan hiru hitzek ardatzu dute Nafarroako hizkuntza gutxitu den euskararen alde gizarte eragileok garatu dugun estrategia: Justizia, kohesioa eta berdintasuna.

Eta, nola ez, etorkizuneko politikak definitu behar diren honetan, zinez nahitaezkoa dugu, hizkuntzaren ikuspegiari lotutako justizia, kohesioa eta berdintasunari begirako politikak eta neurriak abian jartzea.

3

**NAFARROA
EUSKARAtik
SUSPERTU**

Aurreko guztia kontuan hartuta, beraz, Nafarroako Gobernuak gizarte eragileekin partekatu nahi duen ariketa honetan hizkuntza gutxituaren elementua eta haren zehar-lerrotasuna kokatzea izango da Kontseiluaren eta Behatokiaren helburua.

Hizkuntza gutxitua dagoen eremu batean, gurean bezalaxe, herritarrei hizkuntza-eskubideak behar bezala aitortzen ez zaizkien, eta ondorioz, urratzen zaizkien lurralde baten etorkizuna ezin da planteatu aldagai hori kontuan hartu gabe. Gogoan izan dezagun hizkuntzaren afera zehar-lerroa dela. Erabaki guztiek eragiten dute hizkuntza-eskubideetan eta erabaki guztiek eragiten dute, beraz, hizkuntza-politikan. Hizkuntzaren eremuan ez dago neutro izaterik, ezer ez egitea ere hautu politikoa delako.

Kontseiluak eta Behatokiak uste dute geroa euskaratik eraiki behar dela, eta, gainera, aukera berriak zabal daitezke gero justuagoa, ekitatiboagoa eta berdinzaleagoa eraikitzeko, baldin eta hizkuntzaren irizpidea zehar-lerro bihurtzen badugu. Gizarteak ez luke ulertuko aukera hau galdu izana eta herritarren eskubideak betikotzeko urratsak egin izana.

Horrexegatik, dokumentua osatze aldera honako ekarpenak egin nahi dizkiogu *Nafarroa Suspertu* proposamenari



3.1. Misioa eta ikuspegiak

Nafarroa Suspertu 2020-2023 txostenak jasotzen dituen misioei eta ikuspegiei honakoak eranstea proposatzen dugu:

Misioa: Berdintasunerako oinarri berriak. Berdintasun sozialaren eta ekonomikoen artean, gutxitutako hizkuntza-komunitate bat dagoela kontuan hartu beharko da. Era berean, ezberdintasun ekonomikoak handitzen badira, kontuan izan beharko da berezko hizkuntza ikasteko zailtasun ekonomikoak handituko direla.

Ikuspegia: Gizarte erresilienteagoa eta humanoagoaren alde egin beharko dela aipatzen da. Hemen, pertsonetikiko gertutasuna oinarri, eskaintzen diren zerbitzuetan hizkuntza-eskubideak bermatzea ere ardatza izan beharko da.



3.2. Agertokia eta egoeraren azterketa

DIAGNOSTIKOA

Bat egiten dugu diagnostiko egokiaren behararekin. Horrexegatik, Errealitate Sozialaren Behatokiak ez ezik, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak ere egindako azterketak kontuan hartzeko eskatzen dugu. Pandemia-egoerak agerian utzi du non gertatzen diren eskubide-urraketa eta zer nolako arazoak dituen sistemak herritarren hizkuntza-eskubideei erreparatzeko. Horren berri, Estrasburgora igorri genuen apirilean bertan *Basque Language Discrimination Cases* izeneko bilduman.

ALDAKETAK

Bat egiten dugu dokumentuak harreman sozialetan aldaketak gertatu direla esaten duenean. Eta, nola ez, aldaketa horiek mota askotako alderdiei eragin diete: aisialditik eta harreman sozialetik hasita jarduera ekonomikoraino edo eraikuntza ereduetaraino, baina bai eta hizkuntzari ere.

Horrexegatik, dokumentuak planteatzen dituen aldaketetan hizkuntzaren irizpidea kontuan hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Hona hemen adibide batzuk:

- Aldaketak komunitatearekiko harremanetan eta lankidetzazko lanaren eta lan boluntarioaren garrantzia. *Hizkuntza-normalizazioak herritarren harremanen hobetzea eta bizikidetzarako ikuspegia du.*

- Aldaketak ingurumenarekiko harremanean eta klima aldaketaren gaineko inpaktua *Ingurumenaren zaintzarekin lotutako mezuak herritar guztiek hobeto bereganatzea eta txikienengan kontzientziazio heziketa bultzatzea berezko hizkuntzan.*

- Aldaketa bizitokien eredu eta motetan: gune ireki pribatuen (terrazak eta balkoiak) eta etxebizitza kolektiboen garrantzia (adibidez, adinekoen egoitzak, ikasleenak...) *Kolektibotasun-kontzientziaren aitortzak hizkuntza gutxituekiko aitortzan ere eragin dezake.*

- Gure bizitzaren *on-line* bertsio berria sortzea. Teknologia berrien garrantzia, konektibitateari eta horiek eskuratzeari dagokionez, bai eta segurtasun zibernetikoarena ere. *Ingurune digitala hizkuntza gutxituan.*

- Aldaketa kontsumo-ohituretan. Paradoxa bat gertatzen ari da, batetik, tokiko produktua baloratzen delako, baina, aldi berean, saltoki txikien eta tokiko produktuen kontrako mehatxua handiagoa delako *on-line* salmentagatik. *Saltoki txikiek zuzeneko zerbitzuetan hizkuntza-eskubideak bermatzeak zerbitzuaren kalitatean eragina du eta gertutasuna islatzen duen erreklamoak izan daiteke*

- Aldaketa mugaz gaindiko harremanetan, arlo oso desberdinetan eraginez: mugaz gaindiko langileak, larreak, aisialdia, kontsumoa, turismoa... *Barne-turismoaren suspertzeak zein gertuko merkatu potentzialen handitzeak bultzatzea dezakete zerbitzua hizkuntza gutxituan ere bermatzea.*

- Inpaktu desberdina aldagai desberdinen arabera: generoa, gizarte klasea, adina, jatorria, bizilekua... *Bai eta hizkuntza ere.*

EGINDAKO JARDUEREN MEMORIA

Txostenean, Nafarroako Gobernuak dio arlo honetan egiten ari den ekintzak oso dinamikoak direla eta koordinatuta daudela estatuan ezarri direnekin.

Horietako batzuetan, bereziki, hizkuntzaren irizpidea nola kudeatu den ezagutzea interesgarritzat jotzen dugu:

- Osasun neurriak: Presako osasun neurriak, alarma egoeran hartutakoak: Osasun Sistema
- Gizarte babesa: Adinekoen eta aniztasun funtzionala dutenen egoitzak
- Zerbitzu publikoen egokitzapena
- Hezkuntza: Hizkuntza-arrakala. Ikasturte berriaren antolaketa hizkuntza-beharrei egoki erantzuteko
- Herritarren arreta
- Kulturaren sektorea
- Sektore ekonomikoa: Oinarrizko zerbitzu izendatutakoak



3.3. Jarduketa-eremu nagusiak

Nafarroako Gobernuak aurkezten dituen eremu nagusietatik batzuetan hizkuntza-irizpideak garrantzia hartu behar duela uste dugu, eta horrela izan dadila eskatzen dugu:

GIZARTE BABESA

- Adinekoak edo behar bereziak dituztenak babestea
- Beste kolektibo ahul batzuei arreta ematea eta pertsona guztientzako eskubideak bermatzea
- Adinekoen egoitzen ereduak berrikustea

ZERBITZU PUBLIKOAK

- Sektore publikoa, berreraiki eta suspertzeko palanka (hizkuntza-eskubideen bermea)
- Gobernuak dituen hogeita hamar planetik gora koordinatzea eta berregokitzea
- Administrazio Publikoa hobetzeko diagnostikoa eta proposamenak
- Jaiotzari eta heriotzari lotutako zerbitzu publikoetan zaintza-neurri bereziak ezartzea
- Zerbitzu psikiatriko eta psikologikoak indartzea hizkuntza gutxituan eskaintzen direla bermatuaz. Osasuna pertsonen ongizate fisiko, psikiko eta soziala den heinean, osasuna bermatze aldera nahitaezkoa da berezko hizkuntza osasunari lotutako zerbitzu eta maila guztietan txertatzea.
- Larrialdi-sareetan hizkuntzaren hautua txertatu beharra. Larrialdietara bideratutako zerbitzu guztietan berezko hizkuntzaren erabiltzailearen hizkuntza-hautua bermatzea segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea hobetzearekin lotzen da.

BIZIKIDETZA ESPARRUA

- Bizikidetza zibikorako jarduketan programa garatzea
- Boluntariotza edo elkartasuneko lankidetza-sareak koordinatzea hainbat esparrutan
- Harreman sozialetarako, kontsumo azturetarako edo eremu publikoen erabilerarako modu berrietan berrikuntzak egitea

SUSPERTZE EKONOMIKOA

- Enpresek eskaintzen dituzten zerbitzu eta produktuaren kalitatea eta gertutasuna hobetzea, bezeroen hizkuntza-eskubideak bermatuaz
- Zaintza pertsonalei lotutako ekonomia jardueran eta azpiegiturretan euskara ongizatea bermatzeko ezinbesteko neurri bezala txertatzea.
- Kulturari lotutako jarduerak babestea eta hizkuntza gutxitua jarduera horietan sustatzea

TRANSIZIO ENERGETIKOA

- Ingurunearen zaintzari lotutako kontzientziazio-kanpaina eta hezkuntza programetan hizkuntza gutxituaren presentzia bermatzea

LURRALDEAREN GARAPEN JASANGARRIA

- Nafarroako Lurralde Estrategia berrikustea eta Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa aplikatzea
- Landa eremuetan jarduera berpiztea eta lehen sektoreari laguntzak ematea
- Gure nekazaritzako elikagaien katea eta 0 kilometroko estrategiak bultzatzea, eta tokiko produktua sustatzea
- Turismo jasangarria, ekintzailatza berdea, merkataritzaren eta landa ingurunearen arteko lotura... bultzatzeko estrategiak berrikustea
- Turismo jasangarria bultzatzeko, hizkuntza tokiko ondasun eta apeu turistiko bezala sustatzea

EUSKARAREN NORMALIZAZIO PROZESUA

Zalantzarik gabe, hizkuntzaren gaiaren zehar-lerrotasuna aldarrikatzen ari bagara ere, ez genuke nahi ulertzerik eremu horretako estrategia berezitua saihesten dugunik.

Euskararen ezagutza unibertsalerako neurriak, espazioak euskalduntzeko neurriak, euskarazko tresnak ahalbidetzeko neurriak eta herritarren aktibazioa bizkortzeko neurriak ere zehaztu beharko dira 2020-2023 urteetako estrategiari begira.

Horren karira, Euskararen Gizarte Erakundeek KONTSEILUAK bat egiten du gure bazkideek egin dituzten sektorekako proposamenekin. Eta horrekin batera, lehentasunezko neurriak ere identifikatzen ari da.



3.5. Helburu estrategikoak

Aurretik aipatu ditugun aldagaiak, beharrak eta neurriak kontuan hartuz, planteatzen diren helburu estrategiko guztietan herritarren hizkuntza-eskubideen bermea eta hizkuntza gutxituaren sustapen-neurriak zehar-lerro gisa integratzea proposatzen dugu.



3.6. Gobernantza

Txostenean Gobernuak berresten du planaren diseinua ongi gobernatzeko beharrezkoa dela Nafarroako gizarte zibila eta erakundeak bere osotasunean engaiatzea. Hartara, ikuspegi partekatua behar dela berresten du.

KONTSEILUAK eta BEHATOKIAK bat egiten dute ideia horrekin, izan ere, ulergaitz litzateke herritarren etorkizunari eragingo dieten erabakietan haien iritzia kontuan hartua ez izatea.

Horretarako, gure ustez euskararen gizarte erakundearen eta administrazioaren arteko lankidetzaren paradigmen aldaketa sakona behar da. Horren karira, egia da, bai, ez direla gutxi, azken boladan, orain arteko gobernantza-ereduaren inguruko kezka agertu duten adituak. Gobernantzaz hainbeste hitz egiten da, baina zer ezkutatzen da kontzeptu horren atzean? Begiratu dezagun Joan Subiratsek ekartzen digun definizioa:

Gobernantza merkatuko aktoreak eta gizarte zibilekoak gobernatzeko ekintzara ekartzean oinarritzen den erregulaziorako, koordinaziorako eta kontrolerako modu espezifikoa da (Subirats 2018)

Globalizazioak eta merkatuak gure bizitzako esparru guztietan sarbidea duten garaiotan, joera horiei aurre egiteko administrazioaren eta gizarte zibil antolatuen arteko aliantzaren beharraz hitz egiten da han eta hemen. Gobernantza-eredu berriak eztabaidaren erdigunean ditugu beraz, agenda politikoan.

Testuinguru horretan une aproposa izan daiteke jauzi berri bat egin eta euskalgintzaren eta gobernuaren arteko egungo gobernantza-paradigma berritzeko.

Ez da inondik inora gure asmoa hemen egungo gobernantza-ereduaren azterketa sakon eta zorrotza egitea. Are gehiago, ez zaigu iruditzen hau denik horretarako lekua eta ez genuke horretarako gaitasunik ere berariazko lanketa sakonik egin gabe. Halere, horren inguruko eztabaida sustatu beharra ikusten dugu.

Horrekin batera, kontuan har dezagun, KONTSEILUAK eta BEHATOKIAK haien sorreratik mahai gaineratu izan dituztela proposamenak politiketan urrats eragingarriak egin ahal izateko. Oraingoan ere, erantzukizunez jokatu nahi izan dugu Gobernuak aurkeztutako proposamenari erabat uztargarria zaion planteamendua eginez. Hartara, espero dezagun, oraingoan, beste batzuetan ez bezala, dokumentuan jasotako elementuak kontuan hartuak izatea. Izan dadila etorkizuneko gobernantza eredugarria lantzeko lehen urratsa.



+34 948 146 172



kontseilua@kontseilua.eus
behatokia@behatokia.eus



@kontseilua
@behatokia

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA